KANTU ETA HITZA



Iruñea
maiatzak 20 - ekainak 24
O Plaza
19:30

Sarrea doan,
tokia bete arte.
Euria eginez gero
Erraldoien Txokoan.

maiatzak 20

Iker Lauroba & Beste Urtaroak
Udaberria

Iker Lauroba (Donostia 1975) musikari oso emankorra da. Azken urte hauetan sortutako doinu eta testu ederrez osaturiko errepertorioa aurkeztera dator bere taldearekin. Bakarkako ibilbideari ekin zionetik Udaberria bere bostgarren diska argitaratu zuen iaz. Urtaroen sortako hirugarrena izan zen (Udazkena 2018 eta Negua 2019) eta Uda, laugarren urtaroari dagokion diskaren grabaketan murgilduta dabil dagoeneko. Hortik dator jendaurrean proposamena aurkezteko talde parekide honen izena, Iker Lauroba & Beste Urtaroak.

Iker Lauroba: *Ahotsa, gitarra akustikoa, elektrikoa, ukelele*
Leire Letu: *Ahotsa, ukelele*
Urbil Artola: *Dobro, lap steel, gitarra akustikoa, ahotsak*
Olaia Inziarte: *Ahotsa, pianoa, hammond organoa, gitarra akustikoa*
Maria Soriazu: *Baxua, ahotsak*
Andoni Etxebeste: *Bateria*

maiatzak 27

Maria Rivero & Tribu Banda
Parentesiak

Bakarkako bidetik Parentesiak diska berria aurkeztu zigun Mariak 2020ko martxoan, pandemiaren erdian eta etxean konfinaturik geundela. Diska berri honetan bere alderik intimoena erakutsi digu, doinu lasaiak, letra sakonak eta erritmo berriztuekin dator bizkaitarra. Tribu bandarekin batera mimoz landutako zuzenekoa, intimoa baina freskoa, biluzia baina sendoa. Finean, urteetako esperientziaren eta esfortzuaren erakuslehio den ikuskizun ausarta eskeintzen digu.

Maria Rivero: *ahotsa, kitarra eta teklatua*
Eriz Perez: *kitarra elektrikoa*
Josean Valle: teklatua
Gorka Chamorro: *perkusioa*

ekainak 03

Eneritz Furyak
Emadan

Kasernarat taldean aritu ondoren, 2017an atera zuen bere bakarkako lehen lana. Hainbat sari jaso ditu, horien artean Gaztea Maketa Lehiaketako Kafe Antzokiaren saria, eta Euskal Herritik kanpo Kataluinian, Galizian, Frantzian, Belgikan, Alemanian, Suitzan eta Italian eman ditu kontzertuak.
Hitz poetiko ilunkarak kantatzen dituen ahots berezi eta pertsonala da Eneritz Furyakena. Emadan lan berria aurkezteko gitarran eta ahotsean oinarritutako bere ohiko zuzenekoarekin datorkigu, baita pedalez jotako sintetizadorez lagunduta. Harekin berreraikitzen ditu Eneritzek kantuak osatzen dituzten testura elektronikoak zuzenean. Emadan izeneko bere lan berriak folk, pop edo postrocka elementu garaikideekin uztartu daitezkeela erakusten du, euskarazko kantuari beste ikuspuntu bat emanaz.

ekainak 10

Petti
Manipulazio estrategiak

Juan Luis Perez Mitxelenak 'Petti' izenez aurkezten du bere burua musikaren munduan. Duela 21 urte atera zuen bere lehen diskoa, eta 'Manipulazio estrategiak' hamahirugarrena du. Bide horretan, estilo ugari landu ditu, eta nortasun handiko kantutegia osatu du. Bere ezaugarri bereizgarriak erraietatik sortzen zaion ahotsa eta gitarra jotzeko trebezia dira. Pentsamendua, poesia eta doinua; hirurak batzen ditu Pettiren azken proiektuak. Hain zuzen, komunikabideek gizartea manipulatzeko erabiltzen dituen estrategiak identifikatu zituen Noam Chomskyk. Gogoeta horiek bere egin, alanbikatu, eta hitz eta musika bihurtu dituzte Harkaitz Cano idazleak eta Pettik.

Petti: *ahotsa eta kitarra*
Joseba Irazoki: *kitarra*
Iñigo Telletxea: *baxua*
Igor Tellexea: *bateria*
Juantxo Zeberio: *teklatuak*
Alejandro Saul Martínez: *txeloa*

ekainak 17

Habia
Animalia naiz eta

Hiru hari eta hiru ahots batera. Tradiziotik abiatuta sorkuntza berriak jotzen dituzte eta taldearen musika entzutean mundua mugimenduan eta jendeeen soinua hurbiletik sentitzen dugu. Kafira batean bagina bezala, amaren besoetan lokartzen ginelarik bezala. Egoera biziki berezi horretan gizadiaren barnatasunean murgiltzeko. Animalia naiz eta da hirukote honen lehen lana, 2021ean argitaratua.

Elena Haira: *biola, ahotsa*
Amaia Hiriart: *txeloa, ahotsa*
Maia Iribarne Olhagarai: *biolina, ahotsa*

ekainak 24

Ibil Bedi
Beltxarga beltza

Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost lagunek osatzen dute Ibil Bedi taldea. 2019ko ekainean kaleratu zuten lehenengo diskoa Berandu baina garaiz izenpean. Urte horren hondarrean bertan Bide Zuzena-Teilaturantz kantu bikoitza atera zuten, oraingoz taldearen bideoklip bakarraz lagunduta. Aurten ikusi du argia taldearen bigarren lan luzeak: Beltxarga Beltza, konfinamenduarekin batera hondutako hamaika kantu biltzen dituena.

Maitasunaz mintzo dira, zalantzez, ezustekoez, galeraz eta bizitakoez gehienbat. Kantuak, orokorrean, poparen bueltan ibiltzen dira, nahiz eta bestelako ukitu batzuk soma daitezkeen zenbaitetan.

Amets Aranguren Arrieta: *saxoa, ahotsa eta teklatua*
Eder Escalera Llorente: *bateria*
Javier Larrañeta Iribarren: *baxua*
Ibai Osinaga Gogorcena: *gitarra eta ahotsa*
Areta Senosiain Elorza: *biolina eta teklatua*

Antolatzailea / Organiza:

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

Laguntzaileak / Colabora:

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030